

# MAILLOPE

277

2020ko otsaila

TOKIKOM

# HAURREKIN EUSKARAZ, ESKOLAN ETA TELEBISTAN



## LARRAUN HARANA: ZARATATIK, MUSIKARA

Musikaren arloan, armonia omen da nota eta akorde ezberdinak lotu, eta zentzu osoa emanez, antolatzen dituen.

Azken aldian, Larraunen ekimenak ugaritu egin dira. Talde berriak sortu dira, proposamen berriak ditugu... eta oro har, dinamika sozialerako gogoia sumatzen da. Hau da, "soinu anitz entzuten" da gurean; batzuk zahar-ragoak, beste batzuk berriagoak... Hori, gure ustez, pozgarria da, gure bailara bizirik dagoenaren erakusle delako. Gainera, bai inizatiba eta ekimen ezberdinak, baita horiek bultzatuko dituzten taldeak ere, haranaren berpizte-bidean lagungarriak izan daitezkeela pentsatzen dugu.

Hori horrela izanik, lehenagotik datorren, baina areagotzen ari den, joera batek kezkatzen gaitu; hau da, ekimen eta bultzatzaile ezberdinen artean egon daitekeen lehiak. Izan ere, horrek gure komunitate-izaera baldintzatu dezake. Talde guztiek dituzten planteamenduak zilegi dira eta iritziak zein eztabaidak beharrezkoak dira ditugun erronkei aurre egin eta komunitatea hazteko. Baina argi dugu kohesio-beharra dagoela, bai herrien baita herritarren artean ere. Bide horretan, komunitatea eta talde-nortasuna indartzeak izan behar harko luke helburu.

Hori dela eta, dei egiten diegu Larraun haraneko eragile zein instituzio guztiei kohesio eta elkarlanean aritzera. Hori da bidea. Herritarren arteko loturak landu eta konplizitateak sortzen joatea gure bailarari egin ahal zaion oso ekarpen baliotsua da (baliotsuena ez bada).

Komunitatea lantzea etorkizuna eraikitzea da. Horregatik, etorkizuneko Larraun guztion parte hartzearekin egin nahi dugu, modu bateratuan.

Hasieran esan bezala, soinu asko ditugu; baita soinu-jole ugari ere. Baina, soinuak bata bestearen gainetik, zarata besterik ez dira. Goazen, bada, denon artean, soinu ezberdin horiek josi, eta armoniaz, musika sortzera.

Larraun Bizi

## BANDERA ESPAINOLAREN INPOSIZIOAREN AURKA

Araizko udalean, gure nahiaren aurka bandera espainola jarri behar izan dugu eta herritarrei gure desadostasuna helarazi nahi diegu. Udalean jaso dugun errekerimendua ez betetzeak ekarri ditzakeen ondorioak ikusirik, alegia isuna eta inhabilitazioa, ez dugu beste irtenbiderik ikusi.

Idatzi honen bidez, arrotz egiten zaigun ikurra ez dugula gustuko berretsi nahi dugu.

Ikurren harira, gure bailarako armarrarekin, bandera bat egin nahi dugu, honetarako otsailaren 15era arte aukera duzue proposamen desberdinak udalari helarazteko. Ondorengo egunetan, ditugun aukera desberdinak plazaratuko dira eta zuen parte-hartzearekin erabakiko da nola izango den.

Bestalde, herritarrei informazio gehiago eskaintzeko saiakera berri bat egin nahi dugu, horretarako WhatsApp difusio talde bat sortuko da, berau bakarrik informazioa jasotzeko izango da. ARAIZKO UDALAK zabaldu nahi dituen jakinarazpenak zabalduko ditu. Batzarren deialdiak, antolatzen diren ekimen desberdinak, herriarekin zerikusia duen informazioa oro har. Horretarako zuen telefono zenbakia [udala@araitz.eus](mailto:udala@araitz.eus) helbidera igorri edo udalean esan.

Azkenik gogorazi, batzarrak irekiak direla eta udalean zuen ideiak eta proposamenak jasotzeko irekita gaudela.

Araizko Udaleko lan-taldea.

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net)-era hilaren 20a baino lehen.



**ASEGURU AHOLKULARIAK**

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ [aseguruak@aseguruak.eus](mailto:aseguruak@aseguruak.eus)
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



**NEKAZARI, S.L.**

**Kubota**  
**STIHL**

Olagain. Mugiro. Nafarroa  
Tel.: 948504128  
Fax: 948504377  
[nekazarisl@hotmail.com](mailto:nekazarisl@hotmail.com)


ANTONIO CARRARO



**BIDEGO X JATETXEA**

Jaunartzeak  
Ezkontzak  
Ospakizunak  
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia  
20400-TOLOSA 943 577 573  
[info@bidegoxo.com](mailto:info@bidegoxo.com)



04 KUXKUXEAN: Otsaileko zorion agurrak.

05 BERTSO BERRIAK

06 ELKARRIZKETA: Ene Kantak

10 ERREPORTAJETXOA

12 BATZARRE

14 LUZE ETA ZABAL

16 ERREPORTAJEA: Larraungo Berdintasun Mahaia

20 PRINTZA

22 KULTURA

24 MOKOKA

25 KIROLA

28 PLAZATIK PLAZARA

31 KONTU TXIKIAK

**• MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:**

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzeta eta Uztegi.

**• ARGITARATZEN DU:**

Mailope Kultur Elkarteak.  
L.G.: NA 719/93  
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esaneren erantzukizunik.  
[issuu.com/mailopealdizkaria](http://issuu.com/mailopealdizkaria)

**• ERREDAKZIOA:**

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

**• ARGAZKIAK:**

Labrit, J.A. Garaikoetxea, Ricardo Bosch, Sastraka, Beteluko Udala, Ondare Kultur Taldea, Agurtzane Altuna, Ainhoa Azpiroz, Andoni Tolosa, Ibarberri ikastetxea, Araxes ikastetxea, Agustin Saralegi eta Printza.

**• PUBLIZITATEA:**


Labrit Multimedia - 948 210 103 - [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net).

**• MAKETAZIOA:** Araitz Amatria.

**• TIRADA:** 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, Kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.





**Josu Zabaleta Argiñena**

Otsailaren 16an, 8 urte.  
Gure etxeko txikinak 8 urte jada!! Zorionak!! Oso ongi pasa zure egunean. Muxu pila eta besarkada handi bat famili guztien partez!!



**Nere Zabaleta Olasagarre**

Otsailaren 11n, 14 urte.  
Zorionak Lekunberriko Nere Zabaleta Olasagarreri, 14 urte betetzean. Etxeko denak maitasunez.



**Itxaso Oreja Altuna**

Otsailaren 1ean, 5 urte!  
Zorionak pottoki!! Bost...eskue bete urte!!!! Ongi-ongi pasa zure eune, beti bezain bixi, beti bezain alai!!! Muxu handi bat etxeko guztin partez!!!




**Urtzi Argiñarena Saralegi**

Otsailaren 5ean, 7 urte.  
Urte askotako politte, haunditzen ari zara! Jarraitu orain bezain jatorra izaten! Muxu handi bat etxeko partez.

**Uxue Zabaleta Erro**

Otsailaren 22an, 9 urte.  
Zorionak Uxue!!! Segi orain bezain alai!! Muxu handi handi bat etxeko partez!!



**Ane Eguzkitza Telletxea**

Aunitz urtez, Ane! Otsailaren 3an urtea beteko duzu! Familiaren partez zorionak, tiki! Musu handi bat.



**Araitz eta Izai Ezeiza Martiarena**

Otsailaren 1 eta 2an, 8 eta 5 urte.  
Zorionak maiteak! Gozatu zuen egunean eta jarrai ezazue beti bezain alai eta jostari. Muxu erraldoi bana aita eta amaren partez!

**Hodei Goikoetxea Erbiti**

Otsailaren 10ean, 10 urte.  
Zorionak Hodei! Jadantik 2 zifra! Ongi ospatu eguna. Maite zaitugu Haizea, Amets, ama eta aita.

**Araitz Martinikorena Irazu**

Otsailak 8an, 9 urte.  
Zorionak bihotza!!! Ondo pasa zure eguna. Muxu bat Amets, aita eta amaren partez.



**Izei eta Oier Goñi**

Ilbeltzaren 16an eta otsailaren 1ean.  
Zorionak Izei eta Oier! Ongi pasa zuen eguna eta muxu bat etxeko partez.

**Aintzane Eskamendi Alduntzin**

Otsailaren 5ean 10 urte.  
Zorionak, ongi pasa zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat Ekaitz, atte eta amaren partez.



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!  
Idatziezaguzu [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) e-postara hilaren 20a baino lehen.



## LAN, PENSIO ETA BIZITZA DUINA

Ilbeltzaren 30erako deitutako greba orokorrak jarraipena izan zuen herritar zabal baten aldetik. Elkarretaratzeak egin ziren Lekunberriko plazan eta Beteluko aparkalekuan. Bestalde, hainbat enpresa eta saltokik zerbitzua eten zuten gizar-tearen aldarrikapen horrekin bat eginez.



## ERRIGORA

Otsailaren 27tik martxoaren 12ra Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura kanpainaren edizio berri bat izango dugu. Nafarroa hegoaldeko oli-ba-olio birjina estra, kontserba-sortak, arroza eta pasta eskainiko dituzte denboraldi honetan. Euskaraz etiketatuta eta, auzolanari esker, norbere herrian ekoizlearen jatorrizko prezioan.



## D EREDUAREN ALDE

Gorka Urbizuk jarri dio aurpegia aurten NIZE elkarteak D ereduaren aldeko aurre-matrikula kanpainari. Cristina Luqui, Kutxi Romero eta Ghezlane Benalirekin batera osatu dute kanpaina, gurasoak eredu horrekin bat egitera animatuz. Gorka Urbizuk Lekunberriko ikastetxean bitzako esperientziarekin egin du bere ekarpena.

## bertso berriak Mailoperi jarriak: Joxe Mugiro (Aldatz)

*Kirolarien baldintza  
berdinak helburu,  
neska futbolariak  
lanean ditugu,  
berak astindu dute  
futbolan inguru,  
gizonezkook ere  
zer egin badugu.*

*Mailopetik dezagun  
denak deigarra,  
kirolean badago  
justizi beharra,  
neskak jarri digute  
kemen ta indarra,  
gure aldetik ez da  
aski irriparra.*

Doinua: Dama gazte xarmant bat.

**Luis Mari Larretarentzako puntua:**  
**Nafarroan barrena**  
**Bardoak abesten.**  
**Oinak:**  
Izpia, herria,  
guztia, zapia.



# “Irakaskuntzatik kanpo haurrekin eta euskaraz lan egin ahal izatea oso pozgarria da”

2011an abiatu zen Ene Kantak proiektua. Ordutik hona hurrei zuzendutako euskarazko bost cd eta hiru dvd kaleratu dituzte eta, bidean bestelako euskal proiektuak diruz babestu dituzte. Aurtengo ikasturte hasieran berriz, beste pauso bat eman dute, astelehenetik ostiralera ETB3 telebista katean 3 Ene Kantak saioa eskaintzen dute astelehenetik ostiralera. Nerea Urbizu, Oiane Yarza eta Ainara Unanua Atarrabian duten lokalean harrapatu ditugu.

## Nola sortzen da telebista saioa egiteko aukera?

**Nerea:** 2018ko abenduan, Navarra Arenan eskaintako emanaldiaren ondotik, ETBri gure proiektua gusatzaten zitziola eta gurekin elkartu nahi zuela jakinarazi ziguten. Apirilean saioari forma ematen hasi ginen eta hemen gaude, irailaz geroztik telebistan.

## Goizetan hamar minutu inguruko saioa eskaintzen duzue goizeko 08:15ean eta luzexegoa 20:30ean.

**Ainara:** Bai, arratsaldeko 25 minutuoa izaten da.

## Ene Kantak proiektuaren baitan zortzi urte hauetan sortutako abestiak oinarri hartuta ekoiztu da formatu berri hau?

**Nerea:** Oiane eta Urko Ene Kantak

## “Euskara menperatzen dutenean izugarrizko alde nabaritzen da”

antzezlanak eskaintzen ari zirenez, bi pertsonaia sortuta genituen jada eta Astonauta eta Satorjator ere bagenituen. Nire kasuan, nire figura ez zegoenez antzerkietan, Urbi pertsonaia sortu genuen. Beraz, guztira bost lagun gabiltza orain aktore lanetan.

**Oiane:** Lehendik geneuzkan abestiak erabili ditugu eta baita berriak ere.

**Nerea:** Aurten guztira hamabost abesti berri sortuko ditugu. Beraz, aurrez egindako bideoak gain, Euskal Herriko D ereduko ikastetxe ezberdinetako ikasleekin batera abestiak, koreografiak eta elkarriketatxoak prestatzen ditugu eta horrez gain, gai ezberdinekin lotutako esketxak sortzen ditugu, erraldoiei buruzko sekzioa daukagu, irakurzaletasunari buruzko, txotxogiloen tartea, koreografia, marrazketa...  
**Oiane:** Ikastetxeetako ikasleekin abesti bat, koreografia bat eta gai bati buruzko elkarriketatxoak lan-tzen ditugu.

## Eta hori guztia sortzeko nola antolatzen zarete?

**Nerea:** Gidoilari talde bat daukagu (tartean eskualdekoa dugun Julio Soto adibidez). Beraiek arduratzen dira gidoiez. Lehen bederatzi lagun ginen eta orain telebista saioarekin bikoiztu egin da lan-taldea. Astelehenetan lana antolatzeko elkartzen gara. Astearteetan bost egunetako arratsaldeko saioak grabatzen ditugu eta ostegunetan berriz goizetako esketxak. Eta horretarako astelehenetan eta asteazkenetan gidoiak ikasten eta entseatzen ibiltzen gara.

**Oiane:** Badugu “Dantzateka” izeneko sekzio bat ere, koreografiak pausoz



Hiru eta bederatzi urte artekoei zuzendutako saioa da “3 Ene Kantak”. Arg: Labort

pauso ikasteko. Hori eta irakurzaletasunari buruzko grabaketak tartekatzen ditugu asteazkenetan. Eta txotxongiloek astelehenetan.

**Ainara:** Eta ostiraletan, normalean, ikastetxeetan landu behar ditugu abestiak eta gaiak prestatzen ditugu.

### **Zein adin tarteko haurrei dago zuzenduta saioa?**

**Nerea:** Hiru edo lau urtetik bederatzita bitartekoei zuzenduta dago.

### **Eta zer moduzko harrera izaten ari da?**

**Nerea:** Ez dugu datu ofizialik, baina jasotzen gabiltzan kritikak onak izaten ari dira.

### **Aurretik zenuten publiko fidel horrek ere lagunduko du...**

**Nerea:** Hori da! Gu telebistan zerotik abiatu gara, baina kalean aspalditik gaude.

### **Eta ikastetxeetan zer moduz moldatzen ari zarete?**

**Ainara:** Arras ongi, haurrak txoratzen egoten dira.

**Nerea:** Aurrez abesti bat, koreografia bat eta guk proposatutako gai bat edota abeslari ezagunari buruzko informazioa lantzen dute.

### **Joan den hilean Ibarberrin izan zineten...**

**Ainara:** Bai, bost urteko ikasleen gelan egon ginen eta oso ongi. Txiki xamarrak izan arren, arras ongi moldatu ziren. Gorputz atalei buruz aritu ginen solasean eta abestia berriz txotxongiloek buruzkoa izan zen.

**Oiane:** Euskara menperatzen dutenean izugarriko aldea nabaritzen da. Nik galderak egiten dizkiet eta euskara menperatzen dutenean berehala botatzen dituzten erantzunak. Beste zenbait tokitan gehiago kostatzen da. Galderak binaka egiten



Kritika onak jasotzen ari dira "3 Ene Kantak" saioa dela eta. Arg. Labrit.

dizkiegu eta ondoren, taldean ere aritzen dira Satorjator eta Astonautarekin.

**Ainara:** Baina taldean egon arren eta euskaraz ongi jakin arren, gelan izugarriko pertsonaia erraldoia sartzan zaizunean... izutu egiten dira eta hasieran kostatzen zaie solastera animatzea.

### **Halako proiektuak bereziki mesedegarriak izanen dira euskara maila baxuagoa duten lekuetan, ezta?**

**Nerea:** Nik uste eskolek asko eskertzen dituztela halako ekintzak, euskarari bultzada ematen diotelako eta umeentzat motibagarria delako. Hala ere, ezusteko ugari jasotzen ari gara zenbait tokitan, euskara maila baxuagatik. Baina hori da errealitatea.

### **Nafarroan ekoizten den saioa izan arren, gurean ez dugu ETB3 katea ikusteko aukerarik.**

**Nerea:** Hala da. Pena da Nafarroa Garaian sortutako proiektua izan eta ezin ikustea. Aurkezpenean esan genuen moduan, ea noiz den posible ETB3 Nafarroan ere ikustea! Dena den, goizeko saioak ETB1en ere eskaintzen dira ordu berean. Eta

*"Pena da Nafarroa Garaian sortutako proiektua izan eta ezin ikustea"*



arratsaldeko saioak ETBren Nahieran webgunean ikus daitezke.

**Ainara:** Eta asteburuetan astean zehar eskainitakoaren errepikapenak eskaintzen dira ETB1 en.

**Bien bitartean, antzerkiarekin ere jarraitzen duzue...**

**Oiane:** Bai, ilbeltzean esaterako Victoria Eugenia lau saio eman ditugu bi egunetan, Tolosan ere izan gara...

**Izugarrizko arrakasta izaten ari zarete antzerki saioekin ere...**

**Nerea:** Hor kriston hutsunea dagoe-la ikusten da.

**Ainara:** Bai, euskarazko eskaintza gutxi dago txikienezat. Behar bat dago hor.

**Nerea:** Eta eskerrak Baloreak, Kantu Kolore edo Gure Zirkua bezalako proiektuak sortzen ari diren.

**Ezberdina izanen da jendaurrean edo telebistarako antzeztea, ezta?**

**Ainara:** Arras ezberdina da.

**Oiane:** Oso ezberdina da. Jendaurrekoak edo zuzenekoak inprobisaziorako aukera ematen du, gidoia dugu, baina irekiagoa da.

**Ainara:** Eta telebistan gidoira mugatu behar duzu eta denbora zorrotz kontrolatuz.

**Nerea:** Hiru minutuko esketxak dira eta hori errespetatu egin behar da, baita ahotsaren bolumena eta espazioa bera ere mugatua da.

**Oiane:** Eta euskara batuan aritu behar dugu, gidoian datozen moduan esanez. Nik esan dezaket asko ari naizela ikasten euskara batuan hitz egiten.

**Esperientzia aberasgarria izaten ari da beraz...**

**Nerea:** Bai, azken batean, ekoiztetxe bat osatu dugu eta irakaskuntzatik kanpo hurrekin eta euskaraz lan egin ahal izatea oso pozgarria da.

**Oiane:** Hogeitalau pertsona gara eta oso giro polita daukagu.

**Nerea:** Gainera gazteenak 24 urte inguru ditu eta zaharrenak 50 inguru. Hori ere aberasgarria da.

**Ene Kantaken disko berririk izanen dugu?**

**Nerea:** Bai telebista saiorako sortzea aurreikusten dugun hamabost abesti berri horiekin diskoa kaleratuko dugu datorren udazkenean.

**Bar Ainhoa**

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera  
 Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)  
 948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

German Lasarte  
 ARIBONDO HARATEGIA  
 Aralar kalea 9  
 Lekunberri  
 948504157

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.  
 HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:  
 948 50 43 31  
 Lekunberri

**aitz berri**

edertasun zentroa

Lako beikoa  
 Betelu 31890  
 948 513 083  
 696 732 290  
 aitziberri@hotmail.com





## “ENE KANTAK” Taldearen bisita Ibarberrin

Urtarrilaren 14ean, “Ene Kantak” talde ospetsua Ibarberri Eskolara etorri zen, Haur Hezkuntzako 5 urteko hurrekin bideklipa grabatzera eta eskolako hurrekin abestu, dantzatu eta jolastera. Multzoan joko, musika eta irakaskuntza atal ezberdinak egin zituzten. Otsailaren 10etik 14rako astean, Ibarberri eskolako Haur Hezkuntzako 5 urteko hurrak ETB3 kateak eskaintzen duen “3 Ene Kantak” saioko protagonista izango dira. Astelehenetik ostirala bitartean, egunean bitan ikusteko aukera izango duzue, goizeko 8:15 etan eta iluntzeko 20:30etan.

Arratsaldean HH eta LHko ikasleak eta irakasleak, “Ene Kantak Dantzan” ikuskizuna ikusteko eta dantzatzeko aukera izan genuen Lekunberriko kiroldegian. Sekulako sorpresa izan zen eta esperientzia bikaina.

1. maila B-ko ikasleak.

**M. Angeles  
Urrizalki**

**iragarkiak,  
berriak,  
eskelak...**

**Diario Vasco eta Diario  
de Navarra  
Korrespontsala**

**948513056  
699179437**

**Atabal**  
okindegia

Era askotako  
ogiak eta gozoak

Etxez etxe  
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...  
**948513151**

**MAITE**  
harategia

**BERTAKO  
HARAGIA**

Txistorra, txorizoa,  
salteixak,  
sukaldaturako platerak.  
Etxera eramateko  
zerbiltua ere eskeintzen  
dizugu.

Antigua Kalea N°7  
31890 BETELU

Telf: 948 51 30 88

maiteharategia@hotmail.com

## Borroka berde kolektiboa



●● Pello Azpirotz

lepa Mikel!!! Zer moduz? Gaurkoan ekokapitalismoaz edo kapitalismo berdeaz hitz egingo dut. Orain dela gutxi sareetan haserrea piztu zen Real Madrilek distantzia txiki bat (2 ordu kotxez) egiteko trena erabili ordez, 8 aldiz gehiago kutsatzen duen hegazkin pribatu bat erabili zuelako. Gainera, talde honek kamiseta berdea janzen du klima aldaketari aurre egiteko egin zen goi bilera babesten duelako.

Ekokapitalismoaren beste adibide argi bat dela esango nuke. Geroz eta agerikoagoak diren ingurumen arazoek eta kontzientziazioaren ondorioz, ekologismoa indartsuagoa den mugimendu sozial bat da. Honek dakarren ondorioetako bat da gobernu gehienek eta multinazionalak, jendaurrean beraien burua zuzitzeko asmoz, olatu ekologistaren barruan kokatu nahi dutela. Egun batetik bestera, gehien kutsatzen duten enpresa erraldoiak ekologismo kapitalistaren bultzatzaile nagusi gisa ageri zaizkigu. Marketin kanpaina erraldoiak erabiltzen dituzte beraiekiko dagoen ikuspuntua aldatzeko. Ingurumenari dioten errespetua aitzakia gisa erabiliz (gezur hutsa baita), betikoek aberasten jarraitzen dute Lurra suntsitzen duten bitartean.

Kapitalismo berde honek, borroka ekologista borroka indibidual batera soilik mugatu nahi du: bakoitzak gutxiago kontsumitu, berrerabili... Denok daukagu gure ardua eta bizi eredu jakin batzuk zalantzan jartzea eta aldatzea garrantzitsua da egoerari buelta emateko. Baina, klima aldaketa ezin da kapitalismotik bereizita dagoen fenomeno gisa ulertu; multinazionalak baitira kaltearen zatirik handiena sortzen dutenak.

Konponbidea ezinbestean kolektibotik etorriko da, denon artean aurre egin behar diogun arazo bat delako klima aldaketa. Horretarako, sasi ekologismo hori identifikatzea eta baztertzea ezinbestekoa da. Naturearikiko errespeturik ez duen eta etengabeko ekoizpen basatian oinarritzen den sistema honekin bukatu behar dugu. Zein da zure iritzia gai honen inguruan, Mikel?



●● Mikel Hernandorena

lepa Pello!!! Garaiz bagabiltza ere, momentu bat iritsiko da non klima aldaketak atzera bueltarik izango ez duen.

Real Madrilek kamiseta berdea erabiltzen du bigarren elastiko gisa, eta abenduko bigarren asteburuan Espanyolen kontrako partidaren etxean jokatzeko bazuen ere, 2019ko Klimari buruzko Goi Bilera Madrilen izan zela ikusita, zuriz jantzi beharrean, hori baita taldearen lehen kamiseta, berdez jantzea erabaki zuen. Noski, handik hilabete batera konpromiso honek axolarik ez zuela zirudien, zuk esan bezala, trena erabili ordez hegazkina erabili zutelako Salamancara joateko.

Beraien burua ekologismo honen barruan kokatzen duten multinazionalen nahiz erakundeen jarrera gaitzes-teko modukoa da, askotan, nire ustez, gauza bat esan eta ondoren, ezer ez dutelako egiten edo kontrakoa egiten dutelako. Baina are larriagoak dira, esate baterako, Estatu Batuetako nahiz Brasilgo gobernuak klimarekiko duten ikuspegia. Alde batetik, Estatu Batuetako lehendakariak duela urte batzuk erreserba naturalak mugatzeko agindua eman zuen. Bestalde, Brasilgo gobernu ultraeskuindarraren lehendakariaren hitzetan Amazonia ez da Gizatasunaren Ondarea. Lehengo urteko irailean egin zituen adierazpenak kezagarriak dira, dudarik gabe. Bi kasu hauetan beraien burua zuritu ez ezik, ikusten da zuzenean beraien interesak klimaren eta ingurumenaren zainketa gainetik daudela.

Arazo honen konponbidea kolektibotik etorri behar da ezinbestean, dudarik gabe, eta norbanako bakoitzak ardua handia dugu gure eguneroko bizitzan, gauza xumeen bidez, ingurumenari laguntzeko. Hala ere, kontsumismoaren barruan gauden heinean, zentzuzkoagoa iruditzen zait errotik sistema honekin bukatu beharrean (nahiko utopikoa, nire ustez, oraintxe bertan) bestelako bideak bilatzea: birziklatzea, beharrezkoa den janaria soilik erostea, garraio publikoa erabiltzea... Oraintxe bertan, errealistak izanda, neurri hauen aldeko sustapenarekin jarraitu beharko dugun nire iritziz.



# Amalur, haur lapurtuen kasuen biktima direnen elkarteak sortu da

*Amalur elkartearen aurkezpena izan zen joan den hilean Lekunberrin. Lapurtutako hauren familiek eta euren familietatik erauzi eta gero adoptatuak izan ziren pertsonak sortutako nafar elkarteak da. Orain urtebete elkarriketatu genituen gure eskualdean bertan egoera horretan dauden zenbait herritar. Orain, Lekunberriko eta Larraungo udalen babesarekin, pauso bat gehiago eman dute gaia gizarterarazi eta laguntza eskatzeko.*



Lekunberriko Fani Errok eta Intzako Magdalena Goikoetxeak euren kasuak azaldu zituzten aurkezpenean. Olasagarre Goikoetxea familiari 1969ko otsailaren 15ean jaiotako haurra ustez lapurtu egin zioten Tolosako Asunción Kliniketan. Centeno Erro familiak, urte bereko uztailaren 30ean antzeko gertaera bizi izan zuen Iruñeko Virgen del Camino Ospitalean. Bi familiek isilean eraman

dute haurra galtzearen sufrimendua eta lapurretaren susmoa. 2008an Fani bere kasua plazaratu zuen arte. Bere erraina den María Teresa Quintanarekin izandako elkarriketa baten ondotik hasi zen orain dela 50 urte bitzakoa ikertzen.

María Teresa Quintana bera ere Amalur Elkarteko kide da. Baina oso bestelakoa da berak bitzakoa. 1982ko azaroaren 9an jaio zen Madrilgo Santa de la Milagrosa kliniketan. Jaio eta gutxira adoptatua izan zen. Bere guraso biologikoen bilaketan, erakundeek ez diote eskubidez dagoen informazio eman. Patricia Goñi ere adoptatua da. 1972ko irailaren 16an jaio zen Iruñeko Maternidadean. Bere kasuan ere ez du ia dokumentaziorik aurkitu. Bera adoptatu zuten gurasoek diru kopuru altua ordaindu zuten adopzio izapideengatik.

Informazio faltak eta erakundeen babes eskasak aurrera egin ezinik utzi ditu espainiar estatuan euren egoera berean dauden ehunka familia. Hala ere argi pixka bat ikusi dute azken urte honetan Estatu Batuetako laborategiek eskaintzen duten ADN frogari esker. Hain zuzen ere frogak

horiek egitearen garrantzia gizartearen zabalteak da Amalur elkarteak sortu izanaren arrazoiak bat. Froga horiei esker senitartekoak aurkitzea errazagoa da. Eta test hori geroz eta pertsona gehiagok egin orduan eta aukera gehiago izanen dira. María Teresak dagoeneko bere lehengusu biologiko bat aurkitu du horri esker. Lehenik Australian eta Londresen bizi ziren bigarren mailako lehengusuak topatu zituen eta handik tiraka lortu du bere Leongo lehengusuarekin harremanetan jartzea.

Peio Centenok aurkezpenaz azaldu zuen moduan, ADNak bide berri bat ireki die. Urtebetean 21 familia biologikok elkartzea lortu dute. Peio: "Beharrezkoa dugu jendeak ADN test horiek egitea. Halako egoera batean egon ez arren. Estatu Batuetan oso ohiko da zure arbasoen geneak nondik datozen jakiteko, gaixotasunen jatorriak jakiteko edo kuriositate hutsagatik egitea. 60 euro inguru baino ez ditu balio testak eta parekotasunak dauden aldiro, han eta hemen dituzun senideen informazioa iristen zaizu. Estatu espainiarreko populazioaren %5ek frogak egingo balitu, haur lapurtu gehienak euren familia biologikoekin harremanetan jartzea lortuko genuke". Peio bere Infogenes Elkarteak sortu zuen, estatu espainiar osoko kasuak biltzen dituen elkarteak. Amalur Elkartearekin berriz Nafarroan gaia zabaltzea bilatzen da.

Informazio gehiago eta ADN frogak egiteko lotura gomendagarriak: [amalur.home.blog](http://amalur.home.blog) [www.infogenes.es](http://www.infogenes.es)

## TTUTTURREKO 50 KIDE ELKARTU DIRA URTEROKO SAGARDOTEGI BAZKARIAN

Urtea indar berriturik hasi dute Ttutturre Kirol Elkarteko mendizaleek. Ilbeltzean Arabako Korres herrian izan ziren. Handik irten eta Aranbaltzako urtegia, La Casilla lepoan eta La Muela eta El Santo gailurrak igo eta gero San Roman ermita bisitatu zuten. Eta beti bezala eta bost ordu baino gehiagoko mendi ibilaldiaren ondotik, elkarrekin bazkaldu zuten Maeztun. Eta otsailaren 1ean, larunbarekin jada tradizio bilakatu dute otordua egin zuten Ttutturreko bazkideek Oderizko Juanluzenea Sagardotegian. Hori, bai lehenik Irañetara joan eta handik Agiri eta Atara igo ziren, ondoren Oderitzera jaisteko. 50 lagun elkartu ziren bazkaltzera eta ondoren bingoan jolasten eta kontu kontari luzatu zuten eguna.



## LARRAUNGO ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KONPARTSAK BERE PROIEKTUA AURKEZTUKO DU

Larraungo Erraldoi eta Buruhandien Konpartsak bilera egingen du datorren otsailaren 8an, goizeko 11:00etan Lekunberriko udaletxean. Proiektuan interesa izan dezaketen guztientzat irekia izanen da. Baina bereziki, ibarreko kontzeju eta dantzariak egonen dira deituta. Proiektua jendaurrean aurkeztuko da eta Aralar Udal Musika Eskolarekin eta Lekunberriko Udalarekin adostutako lankidetzaren hitzarmenak sinatuko dira. Eta konpartsak eskainiko dituen ekitaldien prezioen, eskatutako diru-laguntzen eta bestelako datu ekonomikoen gaineko informazioa ere emanen da. Gainera, dagoeneko dantzarien entseguak zehazteko egutegiak ere arituko dira. Zuk ere Larraungo Erraldoi eta Buruhandien Konpartsako kide izan nahi baduzu jarri harremanetan:

[comparsavalledelarraun.wordpress.com](http://comparsavalledelarraun.wordpress.com)

[comparsavalledelarraun@hotmail.com](mailto:comparsavalledelarraun@hotmail.com)

606 811 249 / 605 144 958.



## LARRAUNGO HAZIA, LARRAUNGO GAZTEAK BATZEN DITUEN EGITASMO BERRIA

Printzako ateen irekierak zurrumbiltoa sortu zuen larraundarren artean. Bereziki gazteen artean sortutako ezinegonetik atera zen 2019ko udan lehen bilera egiteko aukera. Gazteek Larraunen bizi duten errealitateari buruz ausnartu zuten. Sugo! Etxarri, Larraungo Haziako taldekidea: *"Besteak beste gazteok mugitzen hasteko formula irekiagoa behar genituela ikusi genuen. Eta jarraitu nahi genituen ildoak zehazteko oinarri zabal batzuk adostu genituen, euskararen alde egingo zuena, feminista, inklusiboa, denok gustora egongo ginela bermatuko zuen giroa..."*. Bereziki jendetsuak izan ziren lehen bilera haiek. 35 lagun elkartzen hasi ziren, gerora taldea nabarmen murriztu den arren. Baina dagoeneko hainbat ekintza antolatzen hasi dira. Azaroan egin zuten taldearen aurkezpen ofiziala Larraungo Hazia izenpean. Eta joan den abenduaren 24an esaterako, Larraungo Udalak antolatutako egitarauarekin bat egin zuten eta Errazkinen, Lezaetan eta Azpirotzen ibili ziren abesten. Ondoren, Uitziko elkartearen bazkaldu zuten giro ederrean. Udaberriara begira, lanketa mamitsu bat egitea aurreikusten dute harremanen inguruan.



## GWILYM BOWEN RHYS ABESLARIAREN KONTZERTU OTSAILAREN 9AN, KANTINAN

Gwilym Bowen Rhys galestar abeslariak kontzertua eskainiko du Kantinan, otsailaren 9an, arratsaldeko 19:00etan. Mitxauseneak antolatutako kontzertua da eta sarrera dohakoa izanen da. Animatu eta hurbildu kontzertu akustikoaz gozatzera!

## DONOSTIAKO LILATOIAN LASTERKA EGITEKO DEIALDIA

Araxes Kirol Elkarreak Araitx eta Beteluko emakumezkoei zuzendutako deialdi berezia egin du, datorren martxoaren 8an, Emakumearen Nazioarteko Egunean, Donostiako Lilatorian parte hartzeko. Horretarako taldean bost kilometroko lasterketa presatuko dute datozen asteetan. Animatu!

## "BERTAKO HAZIAK BERRESKURATZEN" HITZALDIA AMAIA URIBARRIEN ESKUTIK

Datorren otsailaren 7an, bertako haziak berreskuratzeari buruzko hitzaldia antolatu du Amaralar Elkarreak Lekunberriko Udalaren laguntzarekin. Hitzordua Azpirozko Elkartean izanen da, iluntzeko 20:00etan. Amaia Uribarri izanen da hizlaria. Bera INTIAko teknikaria da bera eta baita Life NADAPTA proiektuko batatzeko hazien arduraduna ere. Bestalde, Larraunen ekoiztutako banabar ezberdinen dastaketa ere egingen da.

## ANAITASUNA GARAILE LEKUNBERRIN JOKATUTAKO LAGUNARTEKO ESKUBALOI PARTIDAN

Anaitasunak Bidasoaren aurka 25 eta 20 irabazi zuten Lekunberriko kiroldegian joan den hilaren 24an jokaturako partidari. Eskubaloiko lagunarteko partidari 300 ikusle baino gehiago izan ziren. Aurten eskualdeko ekoizle eta dendarietarako osatutako saskien zozketan bildutako diru Larraungo Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa bultzatzeko erabiliko da.



**BERTAKO HAZIAK**

**BERRESKURATZEN**

**OSTIRALA** Otsailak 07  
Azpirozko Elkartean  
20:00etan

**HITZALDIA** Amaia Uribarri  
INTIA-ko teknikaria  
Life NADAPTA proiektuan  
baratzeko hazien arduraduna

**DASTAKETA** Larraunen  
ekoiztutako banabar  
ezberdinak

Sarema Dohainik. (dastaketarako borondatea)

Amalalar  
Larraun  
Larraun



# Nola menstruatzen du zure inguruak?

Hilean behin bost bat egunez. Urtean, hirurogei. Bider berrogei urte, bi mila laurehun egun. Osotara sei urte eta erdi igarotzen ditugu hilekoarekin. Baina zer da? Edo hobeki esanda, zer esan digute honi buruz?

Hilekoa dugunok ez dakigu zer gertatzen den gure gorputzean, ez dakigu zer gertatuko den hurrengo 480 zikloetan. Zikina dela pentsatzen jarraituko dute askok; lotsa, errua... sentituko beste hainbatek. Baina odol horrek dena ongi dagoela adieraziko digu. Sekulako osasun termometro bati buruz ari natzaizue.

Baina nola bizi dugu menstruazioa? Nola bizi dute ingurukoek? Berdin menstruatzen al da Euskal Herrian eta Japonian? Eta Perun?

Niri eta nire inguruari buruz mintzatuko naiz gaurkoan eta hitz bat datorkit burura automatikoki: medikalizazioa. Hori esanen nuke dela gure gizarteak, patriarkal eta kapitalistak, menstruazioa bizitzeko duen oinarria. Eta ederki naturalizatu dugu hori ere.

Lagunak ditut gutxi baino, hauei buruz deus jakin gabe antisorgailu hormonalak hartzen dituztenak, metodo antisorgailu gisa eta ez gaixotasun batentzako tratamendu gisa. Euren argumentuak zikloaren ikuspegi ezkor batekin lotuta daude. Odol jariora berdin, lotsa eta zigorra.

Benetan horren jakin-min gutxi sortzen al du haurdunaldia saihesten duen pilula/metodo batak? Benetan ez dugu nola funtzionatzen



Arg: Unsplash

duzen jakin nahi? Hortxe sistemaren beste garaipen bat. Erosotasunak irabazi gaitu? Baliteke. Antisorgailu hormonalak dira irtenbide azkar eta eraginkorrena. Aski erraza baita egunean behin hartu beharreko pilula batekin kezka guztiak uxatzea. Errazagoa pilula hartzea gure gorputza ezagutzeko denbora hartzea baino. Eta gure gizartearen erritmoak luxu bihurtzen du tarte hori ere.

Hala ere azpimarratu nahi dut zeurea dela azken hitza eta, informazioa guztia eskuan, pilula hartzea, inplantea jartzea... erabakitzen baduzu, aurrera. Nik informazioa eman eta interesa piztu besterik ez dut nahi, kritikoki irakurtzera animatu nahi zaituztet eta hausnarketa era-

gin nahiko nuke zuengan. Hau da, beste ikuspuntu bat lantzea nahiko nuke.

Ziklikoak gara karratua den gizarte honetan. Beraz sistema patriarkala ez da jasangarria ziklikotasun batetik begiratzen badugu. Ahalduntze menstruala beharrezkoa da gure gorputza hutsetik idazten eta sentitzen hasteko. Irakurtzen ikasteko.

Nire inguruak ezkortasunetik, erosotasunetik, lotsatik eta ukapenetik menstruatzen du. Informazio, hezkuntza eta interes faltatik. Otzantasunetik. Zapalkuntza eta indarkeriatik.

Eta zure inguruak? Eta zuk?



luze

Veronica Satrustegi

# Tatuajeak

Hau idazten ari naizen egunean bertan, tatuaje bat egiteko geratua nago. -"Hor ze indok?"- galdetu ziten behin Juan Kruzek igerilekuan ikusita... -"Nonbattee aindu beharkok hik ee bai..."- earke azaldu Juan Kruz!. -"Damutuko haiz!"- esan ziten beste batek. -"Jende asko dok holakoak soldadusken in eta gerora damutu zena..."-. Bai, ni ere gaztetan egindako gauza batzuen damu naiz, hala ere, hori ikas prozesuaren parte dela uste dut. Orain berriz, aukeratzeko gaitasuna eta argitasuna badudala uste dut. Orain bost urte egindako tatuajeaz ez naiz damu, orain hama bost urte egindakoaz ezta ere...

Izan ere, orain urte gutxi tatuajeak kartzeletako jendearen ikurra ziren, gaizkileena eta pandilleroena. Azken aldirian berriz, onartutako artelan bihurtu dira, pertsona askoren erabakia gure gorputza apaintzeko. Izugarritzkoa da bere presentzia kirolarietan, musikarietan... Bai, gorputza "bortxatzea" da hori. Janariarekin egunero bortxatzen dugu, alkoholarekin, kirolarekin... gauza batzuk oso onartuak ditugu, beste batzuk ez hainbeste. Ikusten dut aukeran ez dela osasunarentzat onuragarriena izango, baina bere onurak badaukartza, beste maila batzuetan. Horiek nabaritzen ditut.

Honen denaren atzean galdera sakonagoak daudela uste dut. Ez ote da gure belaunaldia balio hedonista duten gauzetan indarra jartzen ari eta gauza garrantzitsuetan gutxiago? Handia dela ikus daiteke estetikaren inguruan dugun



Arg: Unsplash

jarrera. Handiegia ote? Gure buruari begira gauden bitartean, zer ari da inguruan eta munduan pasatzen? Gorputzari asko begiratzen diogula begi bistakoa dela esango nuke. Gehiegi ote? Modako pasarelak, dendak eta dendak itxurari eskainiak... Kirolariak dira gure eredu, heroi... Elitikoak bistan, baina edozein pertsona kirolari emana, orduak eta orduak astero. Gorputzari gehiegi begiratzen diogula agerikoa da bai, baina ez tatuajeetan bakarrik. Beti topera sortu nahi duen sistema baten ondorio ere bada.

Baina zer da beharrezkoa eta zer gehiegizkoa? Zer da estra? Kotxeak alde batetik bestera bidaiatzeko dira, baina.. haize egokitua badute,

hobe... eta turboa... eta halako marka... Etxeak bizitzeko dira bai, baina erosotasunaren izenean, beti badago traste bat gehiago ekartzeko aukera... Eta hori txarra da? Norberak neurtu behar du hori, nik susmoa dut behar baina kutixi gehiagotan daukagula arreta, hobeto sentiaraziko gaituztelakoan. Baina gero, igual okerrago, horiek lortzeko egin behar dugun guztia egiteko kateatzen garenean...

Garai berriak dira zentzu askotan, eta ez dakit onerako edo txarrrako. Agian edozein pausok bietatik badauka, zeozer irabazten da eta zeozer galdu. Nik susmatzen dudana da, gauzak maitasunez eta zaintzaz eginda, bide interesgarriak daudela. Hortik egiten ditut nire tatuajeak, eta oraingoz pozik noa. Izan ere, bizitzan egiten ditugun ia ekintza guztiak tatuatuak gelditzen zaizkigu gure barrenean, baldintzatu egiten gaituzte. Badugu balio sorta bat gure barruan, beste modu batetara izan daitezkeenik zalantzan jartzen ez duguna. Horiek ere ideia tatuatuak dira.

Eta gizarte ohiturak ere, urtero ia berdinak direnak, egunerokoan tatuatuta dauzkagu eta bere era markatzen gaituzte. Askotan gustuko ez dugun ohitura horren zaporea elikadura edo alkoholez tapatzen saiatzen gara, baina markak hor dirau. Ez da erraza tatuajeak kentzea, beraz, hobe gustatzea. Possible da. Berdina gure bizi aukerekin, ia betiko tatuajeak baitira gehienak, askatasunaren ametsean bizi arren!



# “Arreta batzen gaituen horretan jarri nahi dugu, berdintasunean”

*Larraungo Berdintasun Mahaiak ibarreko eragile, kolektibo eta erakunde guztiak bateratuko dituen erreferentziatzko lan-taldea izatea du helburu.*

Bereziki arrakastatsuak izan dira berdintasunaren alde gurean egin diren azken elkarretaratze eta deialdiak. 2018ko abenduan Larraun Ibarreko Gazteak, Itxaro Emakume Taldea eta Larraun Berdintasunean taldeak deitu-

tako bilera hartan hasi zen mamitzen Larraungo Berdintasun Mahaiaren egitasmoa. Erakunde, kolektibo eta eragile ezberdinei berdintasuna lantzeko eta LGTBI+ kolektiboaren errealitateari buruzko hausnarketa

egiteko deitu zitzairen eta lanketa bat egin ondoren, iaz, martxoaren 8aren inguruan, sortutako jarduera eta deialdien antolakuntzan parte hartu zuten. Udan, udal ordezkari-ekin batera jaietan eman litezkeen eraso sexisten aurkako protokoloa zabaltzeko kanpaina egin zuten. Ainhoa Permach (Larraungo Udaleko Zinegotzia): “Joan den udan, jaietan genero indarkeriaren aurkako protokoloaren inguruan, neska eta mutil gazteak asko inplikatu ziren eta txalotzeko da egindako lana”.

Irailan hain zuzen ere, beste bilkura bat egin zuten Larraun eta Lekunberriko zenbait eragilek berdintasunaren gaia lantzeko. Jai giroan sortzen diren bortizkeria arazoei aurre egiteko protokoloa landu eta aurrez egin izan den lana berrikustez gainera, eragile gehiagorengana iritsi eta ibarrean mahai zabal bat sortzeko beharra azaleratu zen. Ainhoa: “Modu naturalean egindako ibilbidea izan da. Gai hau lantzeko gogoia zuten eragile ezberdinak elkartzen hasi eta azkenean nolabait egituratzeko beharra genuela sumatu genuen. Bestalde, egia da, ikuspegi oso ezberdinekoak eta ibilbide ezberdinak egin ditugun pertsonak garena eta beraz, arreta batzen gaituen horretan jarri behar dugula”.

Eta hori nabarmendu zen irailaren 27an Mitxausean egindako topaketan. Larraungo eragile, elkarte eta kolektibo gehiagorengana iristeko deialdia egin eta Idoia Lekue dinamizatzailearen laguntzarekin, tailer praktiko baten bitartez, landu zituzten



2019ko martxoaren 8an, hainbat herritarrek parte hartu zuten Mendukilon egindako ekitaldian.



# Indar metaketa, sentsibilizazioa eta erreferentzia gunea helburu

Hain anitzak izan daitezke berdintasunaren aldeko lan-ildoak, izandako bilkurretan eztabaida sakonak sorrarazi dituela. Baina ikuspuntu guztiak mahai gainean jarriz hiru helburu amankomun izanen ditu Larraungo Berdintasun Mahaia:

1- Indar metaketa egitea lortu nahi dute. Argi dute halako borroka bat aurrera eramateko eta ibarra oso txikia dela kontuan hartuz beharrezkoa dutela elkar-tu eta denok batera indar egitea.

2- Sentsibilizazioa eta formakuntza. Gizartea eraldatzeko beharrezkoa ikusten dute jendeari aldaketa hori nola eman irakastea.

3- Berdintasun mahaiak erreferentzia gune bat izan nahi du. Edozer gauza gertatzen dela ere, denek jakin dezatela Larraungo Berdintasun Mahaia hor dagoela erantzuteko. Ezbehar bat gertatzen bada, arazoren bat izan eta nora joan ez dakielako edo inork gaia bere elkarte edo eremuan landu nahi duelako edota edozein proposamen duelako.

berdintasunari buruz norberak zituen ikuspuntu, kezka eta pertzepzioak.

Bertan atera zuten ondorioa izan zen besteak beste transbertsaltasunez landu beharreko gaia dela. Hau da, euskararen, klima aldaketaren eta beste borroka askotan bezala, berdintasunaren alde egiteko ezinbestekoa dela gaia modu transbertsanean lantzea. Zerikusi zuzena duelako gure kontsumoarekin, lanarekin, bizi ereduarekin etab. Hori ondorioztatu izanak beste behin berretsi zuen ibarrean dauden kirol, irakaskuntza, erakunde, kultura nahiz gizarte mailako eragile guztiak inplikatzeko beharra. Eta momentu horretan osatu zen Larraungo Berdintasun Mahaia.

Lanean jarraitzeak bere fruituak eman zituen eta azaroaren 25ean Indarkeria Matxistaren Kontrako Martxa antolatu zuten eta arrakasta handia izan zuen. Bi udalak eta herritar ugari batu ziren ibilbide sinboliko horretara. Arantxa Mikeo (Ibarberriko Orientatzailea): *"Indarkeria fisikoak denoi mugitzen digu barrua, baina lanean, pentsioetan eta beste arloetan ematen diren ezberdintasunak askoz ere normalizatuago dauzkagu. Injustizia horiek gutxiago mugiarazten gaituzte"*.

Horregatik, Larraungo Berdintasun Mahaia ibarreko eragile guzti-kin lan egin nahi du, Aralar Musika Eskola, Helduen Abesbatza, Ibarberri Ikastetxea, udalak, gazteria, norbakoak... Berdintasunari buruzko eztabaida eremu ezberdinetan sorraraztea da helburua. Arantxa: *"Ez da*



Larraungo Berdintasun Mahaiko hainbat kide.

*emakumeon kontua, baizik eta gizarte osoarena, izan emakume, gizon, haur, heldu eta alderdi politiko guztiarena. Denok behar dugu gizarte hau berdintasunaren barruan aurrera eramatea".* Gainera, Berdintasun Mahaia emakumeek jasaten dituzten ezberdintasunaz haratago, beste edozein kolektibok jasaten dituztenekin amaitzea du helburu. Arantxa: *"Badira urte askoan baztertu izan ditugun beste identitate batzuk. Emakume edo gizon izateko eskatu diegu, tarteko bestelako aukerak ez baleude bezala. Emakumeok zapalduak egonen gara, baina zure identitatea ukatzea oso bortitza da"*.

Joan den urtarilaren 30ean lan, pentsio eta bizitza duina aldarrikatzeko deitutako grebarekin bat egin zuen Berdintasun Mahaia eta bere atxikimendua adierazi zuen kaleratutako idatzi baten bitartez. Eta besteak beste, gizon eta emakumeen arteko soldata eta pentsio arrakalarekin amaitzea, kontratazioetan sexu, jatorri, ideologia, sexu-identitate, aniztasun funtzional edo ekonomia jardueraren araberrako diskriminaziorik ez dela egongo bermatzea eta etxeko lanak eta zaintza lanak duintzea aldarrikatu zuen.

Bestalde, diagnostiko baten beharra sumatzen dute Larraungo



Larraungo Berdintasun Mahaiaik bat egin zuen ilbeltzaren 30eko greba orokorreakin.

emakumeon errealitatea ezagutzeko. Ainhoa: "Gure kasuan bizi garen lekuan bizitzeagatik beste hainbat zailtasun ditugu borroka honetan. Esaterako, berez lanaren eta familiaren arteko kontziliazioa zaila bada, ibar honetan bizi garen emakumeontzat izugarria da. Aukera gutxi daude bertan lan egiteko eta kanpoan lan egiten dugun askok egunero gutxienez ordu bete ematen dugu autoan. Bestalde, kontuan hartzekoa da adineko zenbat emakume bizi diren gurean eta gehienek zer-nolako dependentzia duten. Gehiengoak ez du gidabaimenik eta hamazazpi herri sakabanatuetan bizi gara. Erosketak egiteko, medikura nahiz ile-apaindegira joateko beti beste norbaiten beharra dute. Gurean ez da inoiz, halako ezberdintasunak leuntze-

ko berdintasun planik egin. Asko dugu egiteko, baina lehenik sentsibilizazio lan hori egin behar dugu, gure errealitatea mahai gainean jarri eta hausnartu".

Dagoeneko, Larraungo eragile gehienek babesa dute. Batzuek gertutik parte hartu dute mahai horretan eta beste batzuk deialdi zehatzetan batuko dira. Bertan dugu Emakumearen Nazioarteko Eguna eta dagoeneko lanean hasiak dira martxoaren 8an eta egun horren bueltan egiten diren jarduera ezberdinak antolatzen. Eta horrez gain, ekainaren 28ko (LGTBI+ Pertsonen Eskubideen Nazioarteko Eguna) kanpaina prestatzen, jai giroan sor daitezkeen indarkeria kasuekin amaitzeko protokoloa hobetzen, bestelako sentsibilizazio kanpainak egiten eta formakuntzarako jarduerak antolatzen joanen dira.

Itxaso Garay (Larraun Berdintasunean taldeko kidea): "Bide onetik goaz. Euskal Herrian ez ezik mundu mailan ere, gero eta gehiago hitz egiten da berdintasun ezaz eta estrukturala den matxismo horretaz eta, nire ustez, hori lagungarria zaigu sentsibilizazio garaian. Nahiz eta oraindik egoera matxista asko normalizatu egiten ditugun".

Larraungo Berdintasun Mahaiaik antolatzen dituen jardueretan parte hartzeko eskatzen die herritarrei eta inork mahaira batzeko edo bestelako interes izanez gero harremanetan jar dadila [larraunberdintasunmahaia@gmail.com](mailto:larraunberdintasunmahaia@gmail.com) e-postaren bitartez.



**Lagunasesoría S.L.**  
Fiskala  
Laborala  
Kontabilitatea  
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232  
[lagunasesoria@terra.es](mailto:lagunasesoria@terra.es)



**SOTIL GARAJEA**  
BETELU  
948 513 007  
[sotilgarajea@gmail.com](mailto:sotilgarajea@gmail.com)



**OKM**  
ABOKATUAK  
Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua  
Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

Xanri Saigos

Egokitzen zaizun aplikazio dendetik jeitsi eta instalatu ondoren, prest egongo da erabiltzeko. Ireki eta lehen pausoa zure izaingo duzu aurrerago gaiak izango da baina beti izaingo duzu aurrerago gaiak gehitu edo kentzeko aukera. Horretaz aparte, ze herrialdetako egunkariak agertuko diren ere aukeratu dezakegu. Hemendik aurrera albisteak irakurri, gus-tokoen sekzioan sartu edo sare sozialen bitartez par-tekatu ahalko ditugu.

Squid, gustuko gaei buruz infor-matua edukiko zaituen aplika-zioa iritsi berri da Play Store eta App Store-ra. Aplikazio honen funtzionamendua oso erreza da: albisteak aterako dizkizu egunkari ezberdinetatik.



SQUID



digitala  
smart  
bidali ikusi  
artekatu  
app  
download

# “Pausoka-pausoka bagoaz aurrera, poliki-poliki betez gure ametsak”

Porrotxekin barrez dantzatu eta kantatu genuen abestiak, ederki laburbiltzen du gure urte hasiera. Azkenaldian, Nafarroako zenbait lekutan Pirritx eta Marimototsekin batera egiten ari den ibilbidea zangozabatu nahian badabilta ere, Printzako areto nagusia goraino beteta, argi geratu zen gure inguruko lagun maitatuenetako bat dela. Txantxa, katxiporreta eta muxu artean, bizi-pozez gainezka utzi gintuzun. Eskerrik asko Porrotx!!

## **Berdea da more berria**

Ohiko auzolan, afari sozial eta formakuntza saioez gainera, zaharren egoitzetako emakume langileen borroka bertatik bertara ezagutzeko aukera izan genuen, Bizkaiko grebetan parte hartu zuen kide baten eta Onintza Iruretaren liburuaren aurkezpenarekin. Langile klaseak pairatzen dituen zuzeneko zein zeharkako jazarpenen egoera garbi islatu zen beste behin. Itzalpean gelditu ohi diren zaintza lanek ere, irtenbide kolektiboak behar dituzte.

## **Etxebizitza**

Etxebizitza pertsonon biziraupenerako ezinbesteko bitartekoa da, baina azkenaldian eskubideak, pribilegio izateko itxura hartuz doaz. Langileon soldatak, erreproduzitu bai baina berriz ere lanera itzultzeko modukoak izan daitezten neurtuak daude eta hileroko hipoteka zein alokairua da gure lan-indarra etengabe saltzera behartzen gaituen gastu esanguratsuena. Menpekotasun erlazio honek baldintzatzen du



ZURE ARGI IZPIAK OSATUKO DU  
PRINTZA

gutziz, gaur egungo gure bizi ereduak: atsedenerako denbora, harremantze-ko modu eta aukerak, aisialdia, gure inizatibetatik abiatu gabeko hainbat lan ordu... baliabide ekonomikoak lortu ezinik dabiltzaneren egunerokoa ahaztu gabe noski.

Jabetza pribatuaren eta diruaren diktadurari azken boladako krisialdia gehituta, emaitzak begi bistakoak dira. Lekunberriko datuak ikusteke, Larrauneko gainerako herrietan esaterako, 556 etxebizitzatik 93 daude hutsik; hau da, batzaz beste 6 etxebizitzatik 1 hutsik. Ez da kasualitatea. Klaserik gabeko mundu justua ipar, oldarraldi kapitalisten aurrean elkar defendatu eta jabetza kolektiboaren eraikuntzan sakontzeko garaia da.

Otsailaren 14an, 19:00etan, orain arteko hausnarketen ondorioak eta aurrera begirako dinamikak aurkeztuko ditugu. Jenderik gabeko etxeak eta etxerik gabeko jenderik egon ez dadin, teoria eta praktika uztartuz, zain egon gabe, antolakuntzaren kulturaren sakondu eta egoerari aurre egiteko dei egiten dizuegu!

### Martxoak 8

Berriz ere hurbiltzen ari zaigu morez seinalatutako data esanguratsu hau, Emakume Langileon Nazioarteko Eguna, eta ezin dugu gure barrene-tan urduritasuna sentitzea ekidin. Gaur egungo sistema kapitalistak emakumeon esplotazioa beharrezko du eta hamaika ertz ditu egunerokotasunean pairatzen ditugunak: zaintza-lanen ardura, edertasun kanonen menpe bizi beharra, indarkeria matxista, soldata arrakala, lan-baldintza

# PRINTZA

**OTSAILA** larraungoprintza@gmail.com

<b>7</b> 19:00	<b>FERMIN BALENTZIA</b> "Vivir para cantarla - Kantuari emana" liburuaren aurkezpena eta kontzertua. Jarraian luntxa.		
<b>10-23</b>	<b>Hasiberrientzako BERTSO IKASTARORAKO</b> izen emate epea (699364704). Orduategia adosteke.		
<b>14</b> 19:00	<b>ETXEBIZITZA:</b> Ondorioaren aurkezpena eta aurrera begirako dinamikak		
<b>15</b> 20:00	Inauterietako kontzertuak: <b>ENKI eta MARIANITÓZ BLAI</b>		
<b>21</b>	<table style="width: 100%; border: none;"> <tr> <td style="width: 50%; padding: 5px;">19:00 <b>URAREN OLDEA.</b> Peru Galbeteren musika- irudi kontzertua.</td> <td style="width: 50%; padding: 5px;">21:00 <b>AFARI SOZIALA</b> Hirugarren ostirala!</td> </tr> </table>	19:00 <b>URAREN OLDEA.</b> Peru Galbeteren musika- irudi kontzertua.	21:00 <b>AFARI SOZIALA</b> Hirugarren ostirala!
19:00 <b>URAREN OLDEA.</b> Peru Galbeteren musika- irudi kontzertua.	21:00 <b>AFARI SOZIALA</b> Hirugarren ostirala!		
<b>23</b>	<table style="width: 100%; border: none;"> <tr> <td style="width: 50%; padding: 5px;">16:00 Formakuntza/eztabaida: <b>DROGA.</b></td> <td style="width: 50%; padding: 5px;">18:00 EHko gazte sozialiston <b>TOPAGUNEAREN AURKEZPENA</b></td> </tr> </table>	16:00 Formakuntza/eztabaida: <b>DROGA.</b>	18:00 EHko gazte sozialiston <b>TOPAGUNEAREN AURKEZPENA</b>
16:00 Formakuntza/eztabaida: <b>DROGA.</b>	18:00 EHko gazte sozialiston <b>TOPAGUNEAREN AURKEZPENA</b>		
<b>28</b> 19:00	<b>HUASCARAN 92.</b> Peru Uragaren mendi esperientziak eta pikoteoa.		

Zure argi izpiak osatuko du Printza

kaxkarrak eta abar luze bat, den-denak dominazio beraren aurpegi ezberdinak, sistema honen biziraupenerako beharrezkoak direnak.

Aipatzekoa da, azken urteotan honen aurrean etengabe hazten ari den indarra; gure bizitza eta gorputzen jabe izateko nahia eta

borroka, alegia. Egoera jasanezin honen aurrean, ezinbestekoa zaigu genero zapalkuntza ahalbidetzen duen errealitatea errotik aldatzea. Jarrai dezagun borrokan beraz, eta martxoaren 8an ere, kalean ikusiko dugu elkar!

ZURE ARGI IZPIAK OSATUKO DU

PRINTZA

## NAFARROA



## Etxekoak nagusi Etxarrin egindako Bardoak taldekako txapelketako saioan

Hasi da 2020ko Bardoak Txapelketa. Otsailaren 31an lehen hiru saioak izan ziren, Txantrean, Iturmendin eta Etxarrin. Larraun da Araitz, Bi dozena taldea, Barañaingo Ipar Haizea taldearekin batera aritu zen Etxarriko saioan eta etxekoak nagusitu ziren. Martxoaren 28ra arte luzatuko da Nafarroako Taldekako Bertso Txapelketa eta guztira 20 saio izanen dira. 13 taldetan banatutako 96 lagunek hartuko dute parte. Batzuk bertsotan, besteak gaiak jartzen, antolakuntzan... Besteak beste, bertsolari gazte eta hasiberriei trebatzeko aukera emate du helburu txapelketak, baina baita bertsolaritz plaza berrietara eramatea ere. Nafarroa osoko 17 udalerritan izanen dira saioa. Lehen fasean bina saio eginen ditu talde bakoitzak. Beste behin, aurkeztu da txapelketara Larraun da Araitz, Bi dozena. Ainhoa Iriarte, Aitor Irastortza, Arkaitz Goikoetxea, Joana Ziganda, Joxe Mugiro, Juan Mari Irastortza, Kizkitza Mujika, Luis Mari Larreta "Latu" eta Oier Lakuntza dira taldeko kideak eta otsailaren 7an, izanen dute bigarren saioa Elgorriagako ostatuan, Malerreka-Baztango Bertsonautak taldearekin batera. Sei talde pasako dira otsailaren 29tik aurrera jokatuko diren finalurrekoetara. Eta finala martxoaren 28an izanen da Lizarrako Lizarra Ikastolan.

Informazio gehiago: [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian.

## ESKUALDEA

## Hasi da txotx denboraldia

Joan den ilbeltzaren 17an eman zitzaion hasiera Nafarroako sagardo denboraldiari Lekarozko Larraldea Sagardotegian. Jakoba Errekondo agronomoak hartu du aurten txotx denboraldia irekitzeko testigua. 250.000 litro inguru kupeleratu dituzte aurten Nafarroako Sagardogileen Elkarteko sagardotegiek. Larraldeaz gain bertako kideak dira Lesakako Lindurrenborda, Berueteko Behetxonea, Aldazko Martitxonea eta Lekunberriko Toki Alai. Horiez gain, gogoratu gurean, beste bi sagardotegi ere irekita izanen direla, Juanluzenea Oderitzen eta Etxaxo Sagardotegia Albiasun.



**ekin**  
rotulación  
948 85 32 79

SAN MIGUEL  
gasolindegia  
  
Xabier Garmendia 629 350 099  
Arbe-Atallu

  
**CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.**  
ZURGINTZA OROKORRA  
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI  
Telefonoa eta Faxa: 948507343  
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

**OGI-BERRI ALTZA**  
Aralar kalea, 41  
Lekunberri  
  
**OGI BERRI**  
OKIN ARTISAUAK 948604884

tanatorios  
**IRACHE**  
Betidanik  
ALTSASU - IRURTZUN  
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA  
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK  
\*\*\*\*\*  
24 ORDUKO TELEFONOA  
• 948 19 70 70 •  
[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

## UITZI



## Giro ezin hobean eman diote hasiera uitziarrek ihote denboraldiari

Ilbeltzeko bigarren asteburuan beti bezain goiztiar ospatu zituzten ihoteak uitziarrek. Larunbatean afaria izan zuten Merkualde Elkartean eta igandean, eguraldi onak lagunduta, urteroko puska-biltza egin zuten etxez etxe. Arratsaldean zozketa egin zuten datorren urteko maiordomoak aukeratzeko. Aurten Guratz eta Xabier Azpirotz arduratu ziren ihoteak ospatzeaz eta Joseba Igartua eta Oier Ijurko izanen dira datorren urteko maiordomoak.

Otsailaren 8an, Baraibarren estralurtarrez mozorroturik aterako dira kalera. Eta Betelun orain dela hamar urte herriko ihoteak berreskuratu zituztela ospatuko dute aurten. Otsailaren 14an, ostiralarekin, eskolako festarekin hasiko da giroa berotzen Lekunberrin eta larunbatean, eguerdiko 13:00etan mozorro lehiaketa egingen da besteak beste. Martixa elkartean egingen dituzte otorduak otsailaren 22an aldazarrek eta hileko azken asteburuan arruiztarrek Attezarko erreko dute. Otsailaren 29an, Arruizen ez ezik, Gorritin ere izanen da ihoteri giroa. 40 urte inguru daramatzate herriko ihoteak ospatu gabe gorritiarrek, beraz, beziak izanen dira aurtengoak!



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean  
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta  
14:30etatik 17:00etara



# BACALAO ELKANO S.L.

**Industrialdea, 11**  
**31870 Lekunberri - Nafarroa**  
**Tel.- 948507319 Fax.- 948604792**  
[bacalaoselkano@jet.es](mailto:bacalaoselkano@jet.es)  
[www.bacalaoselkano.com](http://www.bacalaoselkano.com)



# emozioen munduan

●● Lorea Zulet (Psikologoa)

## Zoriona: gure helburu bakarra?

Nola definitzen duzu zoriona? Zer da zuretzat zoriona?

Azken bolada honetan modan jarri diren mugimendu eta marka askok defendatzen dute zoriontsu izatearen beharra. Baina benetan da beharrezkoa?

Bai haurtzaroan eta bai helduaroan jarraitu behar dugun helburu eta meta bakarra zoriona dela esan digute. Izan ere, badago gizartean "happycracia" mugimenduaren jarraitzailea den adar bat, jakinarazi nahi diguna beti zoriontsu izan behar garela hurrengo mezuekin: beti zoriontsu izan, segundo bakoitzaz gozatu, ez utzi ezerk samintzea...

Helburu on bat da, baina utopikoa azken finean. Izan ere, hori horrela izanda, non geratzen da gure kexatzeko eskubidea? Non geratzen da haserrea, tristura edo beldurra sentitzeko eskubidea eta beharra?

Ikuspuntu honek errudun sentiarazi gaitzake lehen komentatutako emozioak sentiarazteagatik edo hauek sentitzean bizitzaz gozatzen

ez dakigunaren sentsazioa ematen digulako. Baina, bizitza BIZI egin behar da, eta horrekin esan nahi dudana da: haserretu zerbait ondo iruditzen ez zaigunean, tristura sentitu zerbait min egiten gaituenean edo beldurra sentitu etorkizun ezezagun batengatik (adibidez).

Hori dena bizitzea da. Eta hori dena gure zorionaren kontzeptuaren barnean egon daiteke. Betiere egunerokotasuna baldintzatu gabe, dena bere neurrian.

Zergatik da garrantzitsua emozio guztiak zorionaren kontzeptuaren barnebiltzea? Gehiegizko zoriona edo etengabeko zoriona bilatzean, pertsona zapuztuak aurkitzen ditugulako atsekabe errepikakorragatik.



Perfekzioa bilatzean gertatzen den berdina. Azken finean, saldu diguten zorion hori, bilatu dezakegun zerbait da, baina konturatzen garenan iristen ez dela, eta inoiz ez dela iritsiko, atsekabe eta sufri-mendua iristen da.

Azkenik garrantzitsua da oroitzea bizitzan badaudela momentuak gure kontroletik kanpo daudenak: heriotzak, gaixotasunak, amodioa... Hauek sentitu baina ezin dugula egin. Denbora eta lekua eman hauek dakarten emozioei, gure ingurukoekin partekatzea eta bizitzak dakarren hurrengo momentuez gozatu, tokatzen den emozioarekin.

*Zure zalantza pertsonalak Lorearekin argitu nahi dituzu?*

*Jarri harremanetan:*

*lzt.psicologia@gmail.com / 676 975 810.*

**Hostal Betelu**

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak:  
948513026  
618557889

**AMAIRU BAR**

GTXKO PIZZAK.  
KOPA BEREZIAK

948504352

GUNDU MAILA  
LAGUN

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?  
mailope@labrit.net

**LARRAUN**

GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ  
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

**Gruas y Talleres LARRAUN S.L.**

Lekunberriko industriagunea,  
21. nabea  
31870 Lekunberri  
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356  
Telefonoa: 948 507 229  
Faxa: 948 507 281  
gtlarrapun@gmail.com





## Biolentzia ekidinez eta kirol balioak sustatuz

Kirolean ematen diren biolentzia egoerekin amaitzeko formakuntza eskainiko du Lekunberriko Udalak. Wats Team enpresaren eskutik formakuntza saioak eskainiko dizkie Kirol Mankomunitatean nahiz eskualdeko bestelako kirol elkarteetan dabilzan irakasle eta entrenatzaileei. Kirol arloan ematen diren biolentzia egoerak saihesten eta, gertatuz gero, garaiz atzematen eta konponbidea emateko tresnak eskaintzea da helburua. Bestalde, familiei zuzendutako saioak ere eskainiko dituzte, kirolak eskaintzen dituen balio onuragarriak sustatzeko. Gainera, 688 655 099 mugikor zenbakia jarri da herritar guztion eskura, kirolean biolentzia kasurik sufrituz gero, deituz edo WhatsApp bidez, modu azkarrean laguntza eskatzeko. Halakoetan, Wats Team enpresako psikologo eta bitartekarien taldearen aholkularitza jasoko dute herritarrek.

Mendialdeko klubuen arteko Binakako Pilota Txapelketa jokatu da otsailean zehar



Pilotan, hilabete honetan ere albiste onak ditugu. Aitor Balda txapeldu-norde izan zen Lizarrako Txapelketan. Joan den hilean Guillermo Mazo Txapelketako finalera iritsi zen Oinatz Iriarte, nahiz eta ez zuen irabaztea lortu (joan den alean hanka sartu genuen, irabazi zuela adierazterakoan). Baina oraingoan, bai. Oinatz Zangozako txapelketako finalera iritsi zen eta baita irabazi ere.

Bestalde, otsailean Mendialdeko herrietan esku pilota sustatzeko eta pilotarien harremanak sendotzeko Binakako Pilota Txapelketa antolatuta dute Umore Ona, Larraun, Aurrera eta Araxes klubuen artean. Guztira, 52 bikotek parte hartuko dute eta martxoaren 7an erabakiko da bikote txapeldua.

**Txooooo!**

**JUANLUZENA**  
**SAGARDOTEGIA**

**MAIATZERA ARTE txotx denboraldia zabalik**

948 604 571 | 680 652 183 | ODERITZ.

**Martitxonea**  
*sagardotegia*

**Inaxio Begiristain**

**Aldatz**  
**Nafarroa**

**948604607**



## XV. urteurrena bete du aurten Araitz-Beteluko Krosak

167 lasterkarik eman zuten izena aurten Araitz-Beteluko Krosean. Beteluko plazatik irten eta bi buelta eman behar izan zituzten, bat Atalluraino eta bestea Arriberaino. 148 lasterkari helmugaratu ziren proba nagusian. Emakumezkoetan Aitana Gil nafarrak irabazi zuen, 00:29:38 denbora eginez. Berarekin batera igo ziren podiumera Ibarrako Maialen Muñoz (00:29:57) eta Uhartte Arakilgo Maite Beregaña (00:31:02). Gizonezkoetan berriz, Ibon Aranguren zestoarra izan zen azkarrena 25 minutu eta 36 segundoko denbora eginez. Eta atzetik iritsi ziren Adur Ruiz de Azua ormaiztegiarra (00:25:40) eta Lasarteko Raul Gomez (00:25:50). Eskualdeko 30 lagunek parte hartu zuten. Xabier Satrustegi eta Olatz Gonzalez izan ziren eskualdeko podiumeko txapeldunaren koskara igo zirenak. Horiek bezain denbora ona egin ez arren, berezia izan zen proba Miguel Ramon Olanorentzat. Betelun bizi den leitzarrek 50 urte bete zituen probaren egunean eta bere bi alabekin batera egin zuen korrika. Aurten ez zen omenaldirik izan, baina faltan sumatu zuten urtero-urtero antolakuntzan ibili ohi den Joxe Mari Otaegi "Xamargin". Antolakuntzako kideek aurki guztiz osatu dadila opa diote.

**Proba nagusiaz gainera, ohi bezala eta ordu t'erdi lehenago kategoria baxuagokoen probak izan ziren. Horra hor haur lasterketako sailkapenak:**

### **Alebinak:**

1. Maddi Ezkerra.
2. Aintzane Eskamendi.
3. Naroa Mujika.

### **1. Imanol Sotil.**

2. Hodei Goikoetxea.
3. Igor Goñi.

### **Benjaminak:**

1. Laida Azkona.
2. Ana Rivero.
3. Nora Nazabal.

### **1. Ioritz Saizar.**

2. Eñaut Satrustegi.
3. Oier Isturiz

### **Infantilak:**

1. Idoia Arrospide.
2. Maider Olano.
3. Elur Arteaga.

### **1. Conor Aranburu.**

2. Iker Etxarte.
3. Aitor Etxarren.

## BASERRI HANDIA SALGAI

Ikusi Idealistan:

607 524 980

- Etxarri Larraun.
- Porlanezko bi solairu eta ganbara.
- Toki zoragarrian eta etxaurre egokiarekin.

## ETXEA SALGAI

- Etxarri Larraun.
- 2 Etxebizitza bakoitza bere sarrerarekin.
- 2 Familiarentzat egokia.
- Lursaila etxebueltan.

607 524 980

Ikusi Idealistan:

**ESKUALDEKO KORRIKALARIEN  
SAILKAPENA PROBA NAGUSIAN:**

Xabier Satrustegi (Errazkin):	00:27:05
Iñigo Lasarte (Lekunberri):	00:29:26
Alfontso Etxarri (Arruiz):	00:30:21
Iñaki Elizalde (Betelu):	00:30:25
Ander Elizalde (Betelu):	00:30:26
Imanol Jaka (Etxarri):	00:30:41
Ibai Soroa (Arribe):	00:32:42
Araitz Irastorza (Lekunberri):	00:33:00
Imanol Estanga (Betelu):	00:33:15
Mikel Amundarain (Arribe):	00:33:40
Ander Mikeo (Arribe):	00:33:47
Kiko Eskamendi (Betelu):	00:34:04
Olatz Gonzalez (Lekunberri):	00:34:18
Ibai Aldaregia (Lekunberri):	00:34:54
Jose Javier Arregi (Betelu):	00:35:04
Andoni Urrestarazu (Betelu):	00:35:18
Unai Garmendia (Betelu):	00:35:55
Hildegart Gonzalez (Betelu):	00:36:22



Argazki guztiak web orrian ikusgai daude:  
<https://mailope.eus/2020kirola/>



# Azkarate jasangarritasunaren aldeko pausoak ematen

## Orain urtebete argiztapen sare publikoa berritu zenuten...

Bai, argiztapen sarea berritu beharra zegoen eta kontsumo baxuko farolak jarri genituen. Lehen erdiak baino ez ziren piztuta egoten kostu handia suposatzen zuelako eta orain berriz, denak piztuta ditugu eta nabarmen jaitsi da gastua. Orain beste pauso bat eman nahi dugu argiztatze publiko energia banatzaile berde baten eskutan utziz.

## Zeintzuk izan dira hondakinen bilketan hartutako azken neurriak?

Orain dela bost bat urte hasi ginen Araxes Mankomunitatearen bitartez lehen konpostagailuak banatzen. 2019an, beste hamar etxetan jarri ditugu eta gure helburua ekainerako herriko etxe guztietan konposta egitea da. Aurki edukiontzi berdea desagertuko da eta poliki-poliki prestatzen joan behar dugu. Bestalde, plaza inguruan konpostagailu komunitario bat jarriko da herriko etxe, elkarteko eta inguruan dauden landetxe eta Apezetxeko hondakin organikoak bideratzeko.

*“Alternatiba ezberdinak aztertu ondoren, izpi infragorrien sistemarekin funtzionatzen duten plaka batzuk aukeratu ditugu”*



## Eta nor arduratuko da konpostagailu komunitario hori mantentzeaz?

Zorionez, herrian oraindik lan asko egiten ditugu auzolanen bitartez. Urtean sei deialdi egiten ditugu eta horietan parte hartzen ez duten

zenbait etxe bestelako lan batzuetaz arduratzen dira; hilerriaz, herriko etxea garbitzeaz, herri-bideak mantentzeaz, etab. Asmoa da beste bi etxeren artean edo konpostagailu komunitario hori ere mantetzea. Berez, ongi erabiliz gero, ez dute ia lanik eskatzen halako konpostagailuek.

## Herriko Etxeari erabilera handiago emateko berogailu sistema bat jarri duzue...

Bai. Herriko Etxeko edo Mahaixu-Etxeko lehen solairuan erabilera anitzeko lokala daukagu, kontzertuak eskaintzeko, herri-bazkarietarako eta hainbat ospakizunetarako erabiltzen dena. Baina hainbat herritarren aldetik eskaera jaso genuen, batez ere neguan, berogailurik ez zegoelako eta batez ere haur eta gurasoentzako lokal goxo baten falta sumatzen zutelako. Alternatiba ezberdinak aztertu ondoren, azkenean, izpi infragorrien sistemarekin funtzionatzen duten plaka batzuk aukeratu ditugu.

## Nahiko sistema berritzailea da, ezta?

Bai eta, gero eta leku gehiagotan ari dira jartzen. Guztira sei plaka jarriko



Herriko Etxeko lehenengo solairuko sabaian sei plaka jarriko dituzte. Arg: Labrit.





ditugu Herriko Etxeko lehen solairuko sabaian eta hona sartu orduko goxotasuna nabaritzen hasiko zara eta pixkanaka giroa ere epelduko da. Neguan eguzkiak jotzen zaituenean sentitzen den sentsazio bera da. Gaur egun dauden sistema guztietatik kontsumo baxuena duena da eta adituen arabera baita osasunerako kalte txikien egiten duena ere. Lokalaren itxura pixka bat itsustuko dute akaso, baina beharrezkoa bada, modu errazean jarri eta kentzeko aukera ere ematen dute. Otsailerako jarrita egonen dira.

### **Horrez gain, txikienek elkartzeko bigarren espazio berri bat ere izanen dute...**

Hamasei urte inguru zituen jada haur parkeak eta berri beharrezkoen zegoen. Plastikorik gabeko parke bat hautatu dugu. Dena egurrezkoa izanen da eta aluminiozko txirrista izanen du. Gainera joko kooperatiboak sustatzen dituen parkea da. Txirristak berak bi lagun aldi berean jaisteko aukera ematen du eta kolunpioa pertsona bat baino gehiago aldi berean ibiltzeko sare borobil bat da.

### **Eta etorkizunera begira, zein proiektu dituzue buruan?**

Daukagun saneamendu sistema oso zaharkiturik dago. Putzu septikoak daukagu, kasurik onenean solidoa baino bereizten ez dutenak. Hori berri beharra daukagu, baina halako lan handi bat egiteko ezinbestekoa dugu Nafarroako Gobernuaren laguntza. Bestalde, ohartzen ari gara herriaren erdigunea zuhaitzez betetzen ari zaigula. Batez ere, lizarra da arazoa. Azken urtetan izugarri ugartu da. Lehen, barruti ertzetan hazten ziren lizarrak moztu egiten ziren eta orain ez. Oraindik ez dugu erabaki nola ekingo diogun horri, baina lizarrek herria jatea ez badugu nahi zerbait egin beharko dugu. Eta aztertzen gabiltzan beste kontu bat, Kontzejuko aurrezki kontua banku etiko batera aldatzea da. Kontzejuren kasuan, esku diruarekin ez garenez ibiltzen bideragarria izan daiteke. Baina momentuz egiten gabiltzan lanekin pozik gaude eta, herritarren aldetik ere ez dugu kezarik izan eta hori izaten da termometrorik onena!

***Bosgarren legegintzaldia dute Andoni Tolosak eta bere taldekideek Azkarateko Kontzejuan. Eta jada erreleboa nortzuk hartuko zain dauden arren, gelditu gabe dabilta. Herrian egindako azken lanekin jasangarritasunaren aldeko pausoak eman nahi izan dituzte.***

 **ALIPROX**  
Lekunberri  
*janaridenda*  
hamabostaldi  
eskaintza bereziak

*Iñigo Garaioa*  
**MARGOLARIA**  
 **696 658 288**  
**LEKUNBERRI**

**AURRERA**  
**TABERNA**  
**ARALAR, 15**  
**948 60 47 24**

**TAXI**  
**SOROA**  
**609 168 217**  
Bederatzi plaza

**IORTIA** EL INCA DIFERAT HORTZ ELBINKA  
Juanjo Gaitte García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317  
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591  
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005  
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69  
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·  
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

**LARRAUNDARREN BEHARRAK ETA NAHIAK EZAGUTZEKO PROZESU PARTE-HARTZAILEA**

Larraungo Udalak prozesu parte-hartzaile bat martxan jarriko du datorren otsailetik aurrera. Egitasmoa Larraungo EH Bilduren hauteskunderatarako herri programan biltzen zen eta halako ekimenetan trebatzen diren hainbat enpresarekin kontsultatu ondoren, hurrengo hilabetean abian jarriko dute prozesua Aztiker ikerketa soziologikorako enpresarekin.

Ibarrean zer-nolako gabeziak sumatzen diren lan munduan, kulturari, aisialdian, etxebizitzan, garraioan.. Zer-nolako beharrak dauden herrietan, zer-nolako azpiegiturak beharko genituzkeen edo zer-nolako erabilera izan beharko luketen gaur egun Udalaren esku dauden eraikinetan....

Horiek guztiak galdetzen eta jasotzen saiatuko dira prozesu parte-hartzaile honetan. Izan ere, ekimen honen helburu nagusia Larraungo biztanle eta eragile sozialek prozesu honen berri izatea eta parte hartzea baita, baina baita lan komunitarioa balioan jarri eta herri ikuspegia lantzea ere.

Otsailean abiatu eta ekainera bitarte luza daitekeen bidea dela diote udal ordezkariak eta herrietarren parte-hartzea zabala izatea espero dute.



**Antzonia**  
BASERRIKO GAZTA

948 513 468  
www.antzonia.com  
Uztegi (Araitz)

**INFORMATIKA ARALAR**  
LEKUNBERRI - ARAITZ  
LARRAUN  
JALMENTA ETA KONPONTZEA

634 551 743  
infoaralar@gmail.com

**AUTOZERBITZUA - ARRAINDEGIA**  
- HARATEGIA -

**PATXI GALARZA**  
Astelehenetik larunbatera  
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00  
Igande eta jaiegunetan  
8:00 - 14:00  
Irurtzun

**SAN MIGUEL**  
Taberna-Jatetxea  
Arribe  
948 51 31 34

**Antigüedades Gastón**

ZURGINTZA OROKORRA, 948 302 916 - 615 850 174  
ALTZARI RUSTIKOETAN ETA info@antiguedadesgaston.com  
ZAHARBERRITZETAN BEREZITUA. www.antiguedadesgaston.com

- ✓ Lan mota guztiak egiten ditugu zurarekin, batez ere haritz zaharrarekin.
- ✓ Ekarriguzu zure altzari edo dekorazio ideia eta zure neurrira egindako aurrekontua prestatuko dizugu, konpromisorik gabe.
- ✓ Zaharberritze ikastaroak ere eskaintzen ditugu.

Gipuzkoa errepidea, 11. km.  
Gilledi industrialdea, 1 (Gasolindegiaaren alboan)  
31892 Sarasa.

**urrutia**  
enea

etxeko hestekiak  
**LEKUNBERRI**

**OTXOTORENA**  
okindegia

**ARRIBE**

**ADIII TLF BERRIA:**  
948 51 30 32

panaderia okindegia  
**GALBURUeco**

Egurrezko laboreko ogi ekologikoa

Aldezaharra 50 LEKUNBERRI 31870  
948 50 40 42

## OTSAILA



AGENDA

## LAN-ESKAINTZA

Aizarozko ostatua kudeatzeko eskaera epea zabaldu du Basaburuko Udalak. Interesa izanez gero jarri harremanetan: 948 503 035.

## LAN BILA

Etxe / Landetxeen garbiketarako edota pertsonen zaintzarako lan bila dabilen emakumea. Interesik baduzu, nirekin harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 603 138 100.

## SALGAI

Ura berotzeko gasoliozko galdara salgai, 800 litroko deposituarekin. BAXIRO-CA-MOD-GAVINA 20 GTI SP. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 646870837 (Bixente).



## EROSTEKO

Land Rover Defenderra erosiko nuke, berdin dio ze egoeratan dagoen: ITV gabe, matxuratua, kolpearekin... Jarri harremanetan: 623 179 537.

MERAKTU TXIKIA

**TAXILON**

Lontxo Otamendi Artola

661 202 249  
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Aritz

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA  
ARLOETAKO HORNIGAIK  
BURINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

**URZUBI S.A.**

Tel. 948 50 42 41  
Fax 948 60 45 20

Lekunberri  
urzubi@hotmail.com

# BARAIBARKO IHOTEAK

## Otsailak 8, larunbata

10:00 Herriko plazan elkartzea (denok mozorrotuta)

10:15 Gosaria Herriko Ostatuan (Herriak gonbidatuta)

11:30 Kalejira herrian zehar Mendiberriren soinuarekin

15:00 Bazkaria Herriko Ostatuan. Ondoren festak jarraituko du Mendiberrirekin!

\*Aurtengo gaia "ESTRALURTARRAK" izanen da.

\*\*Gosaltzeko eta bazkaltzeko Ostatuan izena eman otsailaren 5a baino lehen.

# GORRITIKO IHOTEK

## Otsailak 29, larunbata

Herri bazkaria Berekotxea Jatetxean,  
musikaz alaiturik

# ALDAZKO IÑAUTERIAK

## Otsailak 22, larunbata

10:00 Gosarie Martixa Elkartean.

12:00 Kalejira herrin zehar.

14:00 Bazkaria Martixa Elkartean.

18:00 Poteoa sagardotegira.

21:00 Afarie Elkartean.

# ARRUIZKO IHOTEK

## Otsailak 29 larunbata

11:30 Hamaiketakoa Elkartean.

12:00 Goizeko puske-biltze Attezararekin.

14:00 Bildutakoarekin bazkaria elkartean.

17:00 Bigarren puske-biltze.

19:00 Kalejira eta Attezararen  
erretzea frontoi aurrean.

20:00 Afaria Elkartean.

# BETELUKO IÑAUTERIAK

## Otsailak 8, larunbata

10:00 Mozorro eta karrozen desfilea herriko plazan.

10:30 Kalejiraren hasiera 3indaROCK elektrotxarangarekin.

Karrika Dantza

Argazki erraldoia "10". Urteurrena ospatzeko!

15:00 Herri bazkaria frontoian.

Ez ahaztu txartela!

Argazki emanaldia bazkarian zehar.

Bazkalostean, "Eman ezazu zure showa!"

18:00 Dantzaldia Fan&Go taldearekin.

00:30 Dj Oixani.

# LEKUNBERRIKO IHAUTERIAK

## Otsailak 14, ostirala

Eskolako Ihauteria

## Otsailak 15, larunbata

11:00 Hamaiketakoa Kattagorri Elkartean.

Sarrerak 10 eurotan Mitxausean.

13:00 Ihauterietako lehiaketa Herriko Plazan, txarangaz alai-  
tuta. 200 euroko sari banaketa tokiko komertzioetan kontsumitzeko.

14:30 Herri bazkaria trinketean

Sarrerak 16 eurotan salgai Mitxausean otsailaren 10era arte  
(Hamabi urtera artekoentzako sarrera 10 eurotan).

19:00 Irurtzungo zanpantzarrak eta pertsonaiak  
Herrian zehar desfilea.

20:00 Attezararen erretzea eta dantza herrikoiak.  
Herriko Plazan.